

M

VENEZUELAKO KRISI POLITIKOA. Koordinadora Demokratikoak Hugo Chavez presidentearen kontra deitutako grebak bederatzigarren eguna bete zuen atzo, istilu handirik gabe. Oposizioak estatu kolpea jotzeko eskatu die berriz militarrei.

Gobernua prest dago oposizioarekin hauteskunde egutegia eztabaidatzeko

Greba orokorra amaitzeko eta negoziatioetan hasteko bozak 2003ko hasieran egitea exijitu du oposizioak

Erredakzioa | DONOSTIA

Iduri du Venezuelako Gobernua prest dagoela oposizioaren presioari eta duela bederatzigarren egun abiatutako greba orokorraren aurrean zenbait arlotan amore emateko. Oposizioa, hala ere, ez dago malgu jokatzen prest. Bitartekariak jakitera eman dutenez, gobernuak hauteskundeak aurreratzeko egutegi bat eztabaidatzea eskaini dio oposizioari. Hain juxtu, bozak aitzinaztea Hugo Chavez presidentea boteretik kendu nahian dabilen oposizioaren eskari nagusieta bat da. Aitzitik, oposizioak, Koordinadora Demokratikoan bildua, atzo muzin egin zion horri eta Chavezek 2003ko lehen hiruhilekoan boz orokorrak egitea ez badu erabakitzen, «hauteskunde kronograma» ez duela eztabaidatuko jakinarazi zuen.

OEA Amerikar Estatuaren Erakundeak idazkari nagusi Cesar Gaviria Venezuelako Gobernuaren eta oposizioaren artean bitartekari dabil egunotan, eta atzo ezagutarazi zuten, Caracasko gobernuak bozak aurreratzeko «hauteskunde kronograma» bat eztabaidatzea eskaini zion atzo oposizioari, baina honek uko egin zion horri, bozak berehala eskatzeko. Koordinadora Demokratikoak atzo onartu zuen duela bederatzigarren egun abiatutako greba orokor mugagabearen jomuga Chavez presidentetzatik «ateratzea» dela. Horrek zentzua kenduko lioke Gaviriaren bitartekaritzari.

Koordinadora Demokratikoak deritzoneko eledun Carlos Ortegak demokratikoki aukeratu-tako gobernuaren kontra estatu kolpea jotzeko eskatu zien, berrero ere, militarrei «errejimen honetatik ateratzeko eginahalak egiteko». Ortegak komunikabide pribatuak zoriondu zituen greban oposizioari ematen ari diren laguntzagatik.

Petrolio, funtsezko

Gobernuak «kolpista» jo duen grebak bederatzigarren eguna bete zuen atzo. Herrialdearentzako funtsezkoa den petrolio



ANDREW ALVAREZ / EPA

Irudian, Maracaiboko golkoan ainguratuta dagoen *Pilin Leon* petroliotzia. Oposizioaren grebak petrolio ekoizpena eta horniketak zaildu ditu.

EGOERARI BURUZKO INFORMAZIOA

Caracasek partzialtasuna salatu du Bruselan

Caracasko gobernuak Bruselan duen ordezkari Luisa Romerok salatu zuen atzo Venezuelako egoeraz ematen den informazioa partziala dela. Adibidez jarri zuen elikagai eskasia aipatzen dela behin eta berriz, baina ez Chavezen gobernuak nekazarien artean elikagaiak banatzeko plan bat abian duela. Larunbatean Hugo Chavez presidentearen alde izan zen manifestazioaren berri ez dela eman ere nabarmendu zuen. Romerok esan zuenaren arabera, «orain

arte egin den manifestazio handiena» izan zen larunbatekoa.

Venezuelako Gobernuak herrialdeko talde politiko guztiekin hitz egiteko borondatea duela esan zuen Romerok, beti ere Konstituzioaren oinarriak errespetatuz. «Kezka» adierazi zuen ordea, «oposizio demokratikoak ezin izan baitu aldendu oposizio argiki kolpistatik». Gainera, zenbait talde indarkeria eragiten saiatu direla salatu zuen.

Oposizioak konstituzioaren aurkako muturreko irtenbideak proposatu ditu, Romeroren ustez. Erreferendum elektoral bat aurreratzeko aukera negoziatio mahaiaren esku dagoela gaineratu zuen, dena den.

ekoizpena eta esportazioak ia erabat geldiarazi ditu grebak, eta horrek izugarri kalte ditzake Venezuelako ekonomia zein egoera soziala. PDVSA estatuko enpresa petrolio ekoizlearen baitan lehia latzean ari dira gobernuaren nahiz oposizioaren aldekoak. PDVSAko presidente Ali Rodriguezek industriaren kontrako «sabotajeak» salatu zituen herenegun.

Industriari adituek esan zute-

nez, greba berehala bukatuko balitz ere petrolio ekoizpenak asteak beharko lituzke ohiko mailetara itzultzeko, birfindegiek denbora behar dutelako berriz martxan jartzeko.

Bestalde, banku pribatuek —greban ere— atzodanik egunean hiru orduz irekitzea erabaki zuten. Venezuelako Bankuen Elkarteak grebari emandako babesa honela azaldu zuen ohar batean: «Krisiari aterabide

instituzional eta demokratikoak bultzatzeko beharra dago».

Atzo hiriburuko hainbat eskola eta dendak itxita segitzen zuten, eta irekita zeuden dendetan herritar askok oinarriko gaiak erosi zituzten, kantitate handitan, horniketa bukatuko den beldur. Haatik, orain arte ez du iduri inon horniketa arazorik dagoenik; ur eta elektrizitate zerbitzuek normaltasun osoz funtzionatzen ari dira.

Bestalde, CTV Venezuelako Langileen Konfederazioa —oposizioa— Chavezen jarraitzaileek komunikabide pribatuen kontra eginiko protestak gaitzetsi zituen atzo. Gobernuaren aldekoek «terrorismo mediatico» iritzi diote oposizioaren aldeko komunikabideen jardunari.

Atzo goizaldean Chavezek salatu zuen militarrek «estatu kolpe berri bat» prestatzen ari zirela eta «komunikabide kolpisten bidez» altxamendu militarren bideo bat hedatuko zutela. Xedea, Chavezen hitzetan, «populazioan izua eta hiri nagusietan indarkeria eragitea» litzateke. Alta, lerrook idazterako ez zen horren berririk jaso.

Rioko Taldearen deia

Latinoamerikako eta Karibeko 19 estatu biltzen dituen Rioko Taldeak, bere aldetik, Venezuelako Gobernuari eta oposizioari elkarrizketarako dei larria egin zion atzo. Erakundeak Cesar Gaviriaren eginahalak sustatu eta Venezuelako egoeraz «kezka» agertu zuen ere.